



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2014IPLE0010

Eguna: 2014/11/27

Ordua: 19:00-21:00

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Agin Laburu Rezola	BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Isabel Otero Glorie	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat

Bertaratu ez direnak

- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N ^o	ORDEN DEL DIA
2014ko urriaren 2 eta 30eko akten onarpena	1	Aprobación de las actas de 2 y 30 de octubre de 2014
Garapen Agentzia: kontu-hartzailearen txostena	2	Agencia de Desarrollo: informe del interventor
4-2014 kreditu-aldaketa: kontu-hartzailearen txostena	3	Modificación de créditos 4-2014: informe del interventor
Ikastolako zabaltzeko obraren finantzaketa: kontu-hartzailearen txostena	4	Financiación de la obra ampliación de la ikastola : informe del interventor
Herri Baratza: lur-erosketak	5	Herri Baratza: compra de terrenos
Ikastolako zabaltzeko obra: kontratazio-espedientea	6	Obra ampliación de la ikastola :Expediente de contratación.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Anuskan: hiritartzeko lanak, kontratazio-espedita	7	Obras de urbanización en Anusca, expediente de contratación
Astigarragan HEA.12ko herri-baratzeak jartzeko Plan Berezia. Behin betiko onarpena	8	Plan Especial para la implantación en Astigarraga de huertas de ocio en la AIU.12.Aprobación definitiva
Ubarburu Zabalpena II ri buruzko Plan Orokorren aldaketarako espeditaaren artxibaketa	9	Archivo del expediente de modificación del Plan General referido a Ubarburu Zabalpena II
Obra txikiak kudeatzeko eta autolikidazioa egiteko ordenantza arautzailea	10	Ordenanza reguladora para la gestión de las obras menores y su autoliquidación
Garraioaren Zentro Integralari alegazioa ebaztea	11	Centro integral del Transporte: resolución alegación
Informazioa, eskariak eta galderak	12	Información, ruegos y preguntas

Erabakiak

1. 2014ko urriaren 2 eta 30eko akten onarpena

Aktak, aho batez, onartzen dira.

2. Garapen Agentzia: kontu-hartzailearen txostena

* Zorione Etxezarraga zinegotzia bertaratu da.

Ogasun-batzordearen irizpena aurkeztu da, onar dadin; kontu-hartzailearen txostena onartu ondoren, honako hau proposatu zaio Osoko Bilkurari:

1.- BETERRIKO GARAPENERAKO ELKARTEA izeneko Garapen Agentzia sortzeko Estatutuak onartzea, eta Estatutuetan kontu-hartzailearen txostenean proposatutako aldaketa sartzea.

Alkateak adierazi duenez, enplegu-arloko eskari eta diru-laguntza guztiei erantzuteko garapen-agentzia bat eratuta ez duen eskualde bakarra gara. Gai hau aspalditik dago eskualdeko korporazioen agendan. Agentziaren Estatutuak igorri dira

1. Aprobación del acta de 2 y 30 de octubre de 2014

Se aprueban las dos actas por unanimidad.

2. Agencia de desarrollo: informe del interventor

*Se incorpora la concejal Zorione Etxezarraga.

Se presenta para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda que tras aprobar el informe del interventor se propone al Pleno:

1º.- La aprobación de los Estatutos para la creación de la Agencia de Desarrollo con la denominación BETERRIKO GARAPENERAKO ELKARTEA, incorporando a los Estatutos la modificación propuesta en el informe del interventor.

Señala el alcalde que somos la única comarca que no tiene constituida una agencia de desarrollo para atender todas las demandas y subvenciones en materias de empleo. Este tema lleva tiempo en la agenda de las Corporaciones de la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

(aldaketekin), eta eskualdeko arduradun politikoeekin egindako bileretan ez da aldaketarik eta alegaziorik proposatu.

Zorione zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du gai honetan ahalik eta adostasunik handiena lortu behar dela eta eraginpean hartutako 6 udalen parte-hartzea behar dela, baina, hasteko, Andoainek ezin du parte hartu, eta Lasarten eta Urnietan ez dago adostasunik. Horregatik, gaia mahai gainean uzteko eskatu du; bestela, aurkako botoa emango dute.

Alkateak adierazi duenez, EAJk ez du borondaterik legegintzaldi honetan gai honi heltzeko, eta, gogorarazi duenez, Urnietako alkateak ez du ezer planteatu horren inguruan; EAJk ez du alegaziorik eta proposamenik planteatu, ez du ezer egin, eta agentzia sortzeko prozesua abian jarri behar dela ulertzen du alkateak.

Zorione zinegotziak adierazi duenez, negoziazio hori alderdi politikoen bitartez bideratu da eskualdean.

Bixente zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du ez duela ulertzen zergatik ez den agentzia erakunde publiko gisa eratzen. 6 teknikari beharko dira, eta hori gehiegizkoa iruditzen zaio. Horregatik, aurkako botoa emango duela iragarri du. Eraketa publikoari edo pribatuari buruzko eztabaida sortu da, eta udalak zer sozietatetan parte hartzen duen adierazi da. Bixente zinegotziak adierazi du EHBildu kontraesanean dagoela kasu honetan aukera pribatua defendatzeagatik.

Proposamena bozkatu da, eta onartu egin da EHBildu taldearen aldeko 7 botoekin eta kontrako 2 botorekin (1 EAJ/PNV taldearena eta 1 H1! taldearena).

comarca y se han remitido los Estatutos, con sus modificaciones y no se ha propuesto ninguna modificación ni alegación en las reuniones mantenidas con los responsables políticos de la comarca.

Interviene la concejal Zorione quien manifiesta que en este tema debe de conseguirse el mayor acuerdo posible y requiere la participación de los 6 ayuntamientos afectados, pero Andoain de entrada no puede participar, y no hay acuerdo ni en Lasarte ni en Urnieta, por lo que solicita que el tema quede sobre la mesa, sino señala que votarán en contra.

Señala el alcalde que EAJ no tiene voluntad de sacar este tema en esta legislatura y recuerda que el alcalde de Urnieta no ha planteado nada al respecto, no habeis planteado ninguna alegación ni proposición, no habeis hecho nada, y entiendo que la creación de la agencia debe ponerse en marcha.

La concejal Zorione indica que esta negociación se ha canalizado a través de los partidos políticos a nivel comarcal.

Interviene el concejal Bixente quien señala que no entiende porque no se constituye la agencia como una entidad pública, se crean 6 técnicos me parece eso excesivo y quiero adelantar que votaré en contra.

Se suscita un debate entorno a la constitución pública o privada indicando las sociedades en las que el ayuntamiento participa, e indica el concejal Bixente que EHBildu cae en contradicción al defender en este caso lo privado..

Sometida a votación la propuesta es aprobada con los 7 votos a favor de EHBildu y 2 votos en contra de EAJ/PNV, H1!.

3. 4-2014 kreditu-aldaketa: kontu-

3. Modificación de créditos 4-2014:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

hartzailearen txostena

Kontu-hartzaileak 4-2014 kreditu-aldaketa onartzeko egindako aldeko txostena aurkeztu da. Kreditu-transferentziaren modalitatean egingo da 47.674,28 €-ko zenbateko batez, gastuen gehikuntzan zein gutxitzean.

Bozketa egin eta gero, aho batez onartu da.

informe del interventor

Se presenta el informe favorable del interventor para la aprobación de la modificación de créditos 4-2014, en su modalidad de transferencia de créditos por importe de 47.674,28€, tanto en aumento como en disminución de gastos.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

4. Ikastola zabaltzeko obraren finantzaketa: kontu-hartzailaren txostena

Udalak Herri Eskola ikastola zabaltzeko obrak zuzenean egikaritzeko proposamenari buruz kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena Ogasun Batzordean azaroaren 24an eztabaidatu ondoren, eta adierazitako txostenean kontu-hartzaileak obra hori txostenean bildutako urte anitzeko planaren bitartez egiteko finantza-iraunkortasuna badagoela ondorioztatzen duela kontuan hartuta, honako hau proposatzen zaio Osoko Bilkurari:

1.- Eusko Jaurlaritzak Herri Eskola zabaltzeko obra 2020. urtea baino lehen egiteko asmorik ez duela ikusirik, Udalak obra hori egikari dezan, 1.171.490,75 €-ko zenbateko batez.

2.- Kontu-hartzailearen txostenean bildutako urte anitzeko plana onartzea. Hona hemen plana zehaztuta:

Gastu-baimenak eta gastu-konpromisoak:
2014: 378.454,94 €
2015: 500.000,00 €
2016: 293.035,81 €
Obraren egikaritzea, guztira: 1.171.490,75 €.

4. Financiación de la obra ampliación de la ikastola: informe del interventor

Debatido en la comisión de hacienda de fecha 24 de noviembre el informe del interventor en relación a la propuesta para que el ayuntamiento aborde directamente la ejecución de las obras de ampliación de la Herri Eskola y como quiera que en el informe precitado el interventor concluye con la sostenibilidad financiera para abordar esta obra a través del plan plurianual contenido en el informe conforme al mismo se propone al pleno:

1º.- Que el ayuntamiento ejecute la obra de ampliación de la Herri Eskola por importe de 1.171.490,75€, a la vista que el Gobierno Vasco no tiene intención de abordar esta obra antes del 2020.

2º.- Aprobar el plan plurianual contenido en el informe del interventor y que se concreta en:

Autorizaciones y Compromisos de gastos:
2014: 378.454,94 €
2015: 500.000,00 €
2016: 293.035,81 €
Total ejecución de obra: 1.171.490,75€.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

3.- Arestian aipatutako txostenean adierazitakoari eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 7.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki, eskumen berrien finantza-iraunkortasunaren gaineko finantza-tutoretza esleituta duen Administrazioaren (Foru Aldundiaren) txosten lotesleak eta eskumen-bikoiztasunik ez dagoela adieraziko duen txostena (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eman beharrekoa) eskatuko dira.

3º.- Conforme a lo señalado en el informe precitado, y de conformidad a lo dispuesto en el artículo 7.4 de la LRBRL se solicitará los informes vinculantes de la Administración que tenga atribuida la tutela financiera sobre sostenibilidad financiera de las nuevas competencias (Diputación Foral), así como la referida a la inexistencia de duplicidad de competencia que deberá emitir el departamento de Educación del Gobierno Vasco.

Zorione zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du abstenitu egingo dela, Eusko Jaurlaritzaren plangintzan ez baitago aurreikusita obra horri ekitea.

Interviene la concejal Zorione quien manifiesta que se va a abstener, dado que el Gobierno Vasco no tiene prevista en su planificación abordar esta obra.

Maite Olatziregi zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du lotsagarria iruditzen zaiola Eusko Jaurlaritzak jardun hau kontuan ez hartzea, batez ere Astigarraga azken urteotan gehien hazten ari den udalerrria dela eta datozen ikasturtean ikasgelak faltako direla kontuan hartuta.

Interviene la concejal Maite Olatziregi quien manifiesta que le parece vergonzoso que el Gobierno Vasco no contemple esta actuación habida cuenta que Astigarraga es el municipio que más está creciendo en los últimos años, y para el próximo curso faltará aulas.

Bixente zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du premia dagoela, biztanleria hazten ari dela eta egiteko premia dagoela, baina obra Eusko Jaurlaritzak egin behar du.

Interviene el concejal Bixente quien manifiesta que hay necesidad, que la población está creciendo y que hay necesidad de hacerlo, pero la obra la tiene que abordar el Gobierno Vasco.

Proposamena bozkatu da, eta onartu egin da aldeko 8 botorekin (7 EHBildu taldearenak eta 1 EAJ/PNV taldearena) eta abstentzio batekin (H1! taldearena).

Sometida a votación es aprobada con 8 votos a favor (7EHBildu, 1 EAJ/PNV), y 1 abstención de H1!.

5. Herri Baratza: lur-erosketak

Herri Baratza programarako 2.838 m²-ko azalera (Mendiola Aldian) 48.246 €-ko prezioan erosteko salerosketa-kontratuaren zirriborroa aurkeztu da, onar dadin, eta alkateari ahalmena eman zaio erosketa hori egiteko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

5. Herri Baratza: compra de terrenos

Se presenta para su aprobación el borrador de contrato de compraventa para la compra de 2.838 m² (Mendiola Aldia) por el precio de 48.246€, para destinarlo al programa de Herri Baratza, y facultándose al alcalde a la firma de cuantos documentos sean necesarios para ejecutar dicha compra.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Proposamena bozkatu da, eta onartu egin da aldeko 8 botorekin (7 EHBildu taldearenak eta 1 EAJ/PNV taldearena) eta abstentzio batekin (H1! taldearena).

Bixente zinegotziak adierazi du horrelako programek ez dietela mesede egiten lurretik bizi diren baserritarrei.

Sometida a votación es aprobada con 8 votos a favor (7EHBildu, 1EAJ/PNV) y la abstención de H1!.

El concejal Bixente señala que este tipo de programas no benefician a los baserritarras que viven del campo.

6. Ikastola zabaltzeko obra: kontratazio-espeditentea

“Astigarragako Herri Eskola” zabaltzeko obrak 968.174,18 €-ko lizitazio-prezioan eta Osoko Bilkura honek onartutako urte anitzeko planari jarraiki kontratatzeko 2014ICON 0015 kontratazio-espeditentea aurkeztu da, onar dadin.

Kontu-hartzaileak hartu du hitza, eta adierazi duenez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 7.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki txosten lotesleak eskatu behar zirela zioen txostenak.

Alkateak adierazi duenez, txostenak eskatu egingo dira, baina ez da txosten horien zain egongo obraren kontratazioa egiteko.

Honako proposamen hau bozkatu da:

- 1.- Kontratazio-espeditentea onartzea.
- 2.- Administrazio-klausula partikularren Agiria onartzea.
- 3.- Lizitazio publikorako deialdia onartzea.
- 4.- Kontratazioari lotutako gastuak baimentzea (1.171.490,75 €), onartutako urte anitzeko planari jarraiki.

Proposamena onartu egin da aldeko 7 botorekin (EHBildu taldearenak) eta 2 abstentziorekin (EAJ/PNV taldearena eta H1! taldearena).

6. Obra ampliación de la ikastola: expediente de contratación

Se presenta para su aprobación el expediente de contratación 2014ICON 0015 para la contratación de las obras de ampliación de “Astigarragako Herri Eskola”, con un precio de licitación de 968.174,18€, y conforme al Plan Plurianual aprobado en este pleno.

El interventor interviene señalando que en el informe emitido se reseñaba la necesidad de solicitar los informes vinculantes de conformidad a lo dispuesto en el art.7.4 LBRL.

El alcalde señala que los informes se solicitarán pero que la contratación de la obra no esperará a dichos informes.

Sometida a votación la propuesta de:

- 1.- Aprobación del expediente de contratación.
- 2.- Aprobación del Pliego de Cláusulas Administrativas particulares
- 3.- Aprobación de la convocatoria de licitación pública.
- 4.- Autorización del gastos vinculado a esta contratación (1.171.490,75€) de acuerdo al plan plurianual aprobado.

Es aprobada con 7 votos a favor (EHBildu), y 2 abstenciones de EAJ/PNV, H1!.

7. Anuska: hiritartzeko lanak, kontratazio-espeditentea

“Hiritartze-berrikuntzako egitasmoa, kale

7. Obras de urbanización de Anuska: expediente de contratación

Se presenta para su aprobación el



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Nagusia 62, 64, 70, 72” obrak 315.851,14 €-ko lizitazio-prezioan eta administrazio-klausula partikularren agirian jasotako urte anitzeko planari jarraiki kontratatzen 2014ICON 0025 kontratazio-espeditentea aurkeztu da, onar dadin.

expediente de contratación 2014ICON 0025 para la contratación de las obras de “Hiritartze berrikuntza egitasmos kale Nagusia 62,64,70,72”, con un precio de licitación de 315.851,14€, y conforme al Plan Plurianual que se recoge en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Alkateak adierazi du obra hori ez dela egikaritutako fundazioaren jabetzakoak diren lursailetan.

El alcalde manifiesta que en la ejecución de esta obra no se realizará sobre terrenos de propiedad de la fundación.

Honako proposamen hau bozkatu da:

- 1.- Kontratazio-espeditentea onartzea.
- 2.- Administrazio-klausula partikularren Agiria onartzea.
- 3.- Lizitazio publikorako deialdia onartzea.
- 4.- Kontratazioari lotutako gastuak baimentzea (371.588,57 €, BEZ barne), onartutako urte anitzeko planari jarraiki.

Sometida a votación la propuesta de:

- 1.- Aprobación del expediente de contratación.
- 2.- Aprobación del Pliego de Cláusulas Administrativas particulares
- 3.- Aprobación de la convocatoria de licitación pública.
- 4.- Autorización del gastos vinculado a esta contratación (371.588,57€) iva incluido.y de acuerdo al plan plurianual aprobado.

Proposamena onartu egin da aldeko 8 botorekin (7 EHBildu taldearenak eta 1 EAJ/PNV taldearena) eta abstentzio batekin (H1! taldearena).

Es aprobada con 8 votos a favor (7 EHBildu, 1 EAJ/PNV), y 1 abstención, H1!.

8. Astigarragan HEA.12ko herri-baratzeak jartzeko Plan Berezia. Behin betiko onarpena

8. Plan Especial para la implantación en Astigarraga de huertas de ocio en la AIU.12. Aprobación definitiva

Hirigintza-batzordearen irizpena aurkeztu da, onar dadin. Honako hau proposatzen da:

Se presenta para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo proponiendo:

Lehenena.- Astigarragan HEA 12 “Mendiaundi-Anibar” herri-baratzeak jartzeko Plan Berezia behin betiko izaeraz onartzea.

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Especial para la implantación de huertos públicos en el municipio de Astigarraga.

Bigarrena.- GAO n eta prentsan behin betiko onarpenaren iragarkia ezartzea, onartutako Plan Berezia n Hirigintza araudiekin batera.

Segundo.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el BOG y en el periódico de mayor difusión de Gipuzkoa, así como las Normas urbanísticas del Plan Especial aprobado.

Hirugarrena.- Onartutako dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundian dagoen Hirigintza-Plangintza Erregistrora bidaltzea.

Tercero.- Remitir el documento al Registro administrativo del planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Bixente zinegotziak adierazi du proiektuaren aurka dagoela, ez baitie mesede egiten baserritarrei; aitzitik, kaltegarria izan daiteke haientzat.

Alkateak erantzun du horrelako baratzek aisia-alternatibak direla, eta ez dituztela baserritarren interesak kaltetzen.

Zorione zinegotziak adierazi duenez, ez da alegaziorik jaso, eta, beraz, aldeko botoa emango du.

Proposamena bozkatu da, eta onartu egin da aldeko 8 botorekin (7 EHBildu taldearenak eta 1 EAJ/PNV taldearena) eta abstentzio batekin (H1! taldearena).

El concejal Bixente manifiesta que está en contra de este proyecto dado que no beneficia a los baserritarras, sino que les puede perjudicar.

Contesta el alcalde que este tipo de huertas es una alternativa al ocio y que no perjudica a los intereses de los baserritarras.

La concejal Zorione señala que no se ha recibido ninguna alegación, por lo que votará a favor.

Sometido a votación es aprobada con 8 votos a favor (7 EHBildu, 1 EAJ/PNV), y 1 abstención, H1!.

9. Ubarburu Zabalpena IIri buruzko Plan Orokorraren aldaketarako espedientearen artxibaketa

Hirigintza-batzordearen irizpena aurkeztu da, onar dadin. Honako hau proposatzen da:

Lehenengoa.- AIU 24 "Ubarburu Zabalpena II" eremuari dagokion HAPOaren Aldaketari buruzko espedienteari bukaera ematea eta artxibatzea.

Bigarrena.- Hartutako erabakia GAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Hartutako erabakiaren berri Aizkibel, S.L. enpresari jakinaraztea.

Bixente zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du gai honetan Astigarragak, enpresa-ondorioetarako, 2 enpresa eta bertako lanpostuak galduko dituela, aurretik Hormigones y Minas (Ergobian) eta Rofer Buenaventura galdu baitziren. Gaineratu duenez, aurreko legegintzaldian enpresa bati eutsi nahi izan zitzaion Astigarragan; Olaberrian ongi finkatutako antzeko enpresa batzuk ikusi zituzten, eta ezaugarri horiek zituen enpresa bat egin nahi izan zuten Astigarragan. Orain,

9. Archivo del expediente de modificación del Plan General referido a Ubarburu Zabalpena II

Se presenta para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo proponiendo:

Primero.- Dar término y archivar el expediente de modificación puntual del P.G.O.U. de Astigarraga referida a la A.I.U. 24 "Ubarburu Zabalpena II".

Segundo.- Publicar el acuerdo adoptado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Tercero .- Notificar el acuerdo adoptado a la mercantil Aizkibel, S.L.

Interviene el concejal Bixente quien dice que con este tema a efectos de empresa Astigarraga pierde 2 empresas y sus puestos de trabajos, dado que antes en Ergobia desapareció Hormigones y Minas, también desapareció la de Rofer Buenaventura. Señala que en la legislatura anterior quisieron mantener una empresa en Astigarraga, y que vieron empresas parecidas bien implantadas en Olaberria y quisieron que se hiciese una de esas características en Astigarraga. Ahora



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

planteatutako aldaketarekin, gaia itxita con la modificación planteada se cierra geratu da, eta zalantzan jartzen du Udalak este tema y pongo en duda el esfuerzo Astigarragan enpresa horri eusteko realizado por el ayuntamiento para egindako ahalegina. mantener esta empresa en Astigarraga.

- Agin Rezola zinegotzia irten egin da aretotik.
- Se ausenta de la sala el concejal Agin Rezola.

Alkateak adierazi du lurzoru El alcalde señala que la reclasificación urbanizaezinean industria sartzeko propuesta en suelo no urbanizable para proposatutako sailkapen berriak ez zuela meter industria carecía de todo sentido y inolako zentzurik, eta galdetu du zergatik pregunta porqué no la ubicaron en el ez zen Zakurmendegi industrialdean poligono industrial de Zakurmendegi?. kokatu.

Proposamena bozkatu da, eta onartu egin Sometido a votación es aprobada con da aldeko 7 botorekin (6 EHBildu, 1 abstención, H1!. taldearenak eta 1 EAJ/PNV taldearena) eta abstentzio batekin (H1! taldearena).

10. Obra txikiak kudeatzeko eta autolikidazioa egiteko ordenantza arautzailea

Hirigintza-batzordearen irizpena aurkeztu da, onar dadin. Honako hau proposatzen da:

Lehenengoa.- Astigarragako udalerriko obra txikiak arautzeko Udal Ordenantzari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Espedientea Udal Idazkaritzari helaraztea, bidezko izapideekin jarrai dezan.

Hirugarrena.- Jendaurrean jartzea 30 eguneko epean.

Bozketa egin eta gero, aho batez onartu da.

11. Garraioaren Zentro Integralari alegazioa ebaztea

10. Ordenanza reguladora para la gestión de las obras menores y su autoliquidación

Se presenta para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo proponiendo:

Primero.- Aprobar con carácter inicial la Ordenanza Municipal para regular las obras menores en el municipio de Astigarraga.

Segundo.- Trasladar el expediente a Secretaría Municipal para que continúe con su trámite correspondiente.

Tercero .- Someter a información pública por el plazo de 30 días.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

11. Centro integral de transporte: resolución alegación



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Hirigintza-batzordearen irizpena aurkeztu da, onar dadin. Honako hau proposatzen da:

Se presenta para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo proponiendo:

Lehenengoa.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari udal-arkitektoaren 2014ko azaroaren 5eko txostenean egindako alegazioak igortzea.

Primero.- Remitir al Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa las alegaciones formuladas en el informe del arquitecto municipal de fecha 5 de noviembre de 2014.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari alegazioen idazkia onar dezan eta bidezko izapideen ondoren baiets ditzan eskatzea.

Segundo.- Solicitar al Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que admita el escrito de alegaciones y tras los trámites oportunos proceda a su estimación.

Alkateak aurkeztu den alegazioa irakurri du, eta, bestalde, arkitektoaren bitartez alegazio puntualak aurkeztu direla adierazi du.

El alcalde da lectura a la alegación presentada, y por otro lado indica que a través del arquitecto se han presentado alegaciones puntuales.

Zorione zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du proiektu horren aurka agertu zen bakarria Bixente izan zela, aurreko legegintzaldian gai honen inguruan zeuden zalantzak legegintzaldi honetan islatu ez direla, eta garbi geratu dela EHBildu ez dagoela proiektuaren aurka.

Interviente la concejal Zorione que contra este proyecto el único que se posicionó en contra fue Bixente, que las dudas que había sobre este tema en la legislatura anterior no se han plasmado en esta legislatura, y ha quedado claro que EHBildu no está en contra de este proyecto.

Andonik adierazi duenez, hori ez da egia. Hori arautzen zuen Lurraldearen Zatiko Planaren aurka agertu ziren. Gaineratu du ENBA elkarteak zorionak eman dizkiela horregatik.

Indica Andoni que eso no es cierto contra la PTP que regulaba esto nos posicionamos en contra y señala que ENBA como asociación nos ha felicitado por ello.

Zorionek adierazi du ez duela ezer proiektu honen alde edo kontra eta ez duela ezagutzen, baina uste du zenbait gai konpondu egin behar direla (sarbideak eta abar).

Indica Zorione que no tiene nada ni a favor ni en contra de este proyecto, que no lo conoce, pero si que se deben resolver temas de accesos,...

Alkateak adierazi du proiektua Batzar Nagusietan onartu zela EAJ/PNVren aldeko botoarekin, eta gaineratu du Zorionek EHBilduri gaia axola ez zaiola dioen ohar bat eman duela argitara. Alkateak esan duenez, Zorionek adierazi duena ez da egia.

El alcalde señala que este proyecto se aprobó en Juntas Generales con el voto a favor de EAJ/PNV y añade el alcalde que Zorione ha hecho pública una nota en la que se dice que a EHBildu no le preocupa este tema, y señala el alcalde que las afirmaciones de Zorione no son ciertas.

Bixente zinegotziak adierazi duenez,



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

aurreko legegintzaldian aurka agertu ziren, eta legegintzaldi honetan Bildu sartzean, alderdi hori ere aurka agertuko zela pentsatu zuen, baina ez da halakorik gertatu. Oposizioak gai honetan izan duen informazioari dagokionez, informaziorik izan ez dutela eta alegazioak egiteko aukerarik eman ez zaiela esan du. Bat dator aurkeztu diren alegazioekin, baina beste gai batzuk ere gainera zitezkeen, hala nola agroaldea, herriarentzako onurak, lanpostuak eta abar.

Eztabaida luzea izan da gai honen, zinegotzien parte-hartzearen eta parte hartzeko prozesuen inguruan, eta, amaitzeko, alkateak adierazi du alkatetza irekita dagoela zinegotzietan nahi dutena argitzeko.

Bozketa egin da, eta onartu egin da EHBilduren aldeko 6 botoekin, abstentzio batekin (EAJ/PNV) eta aurkako boto batekin (H1!).

El concejal Bixente señala que en la anterior legislatura se posicionaron en contra, y pensó que con la entrada de Bildu esta legislatura se posicionaría también en contra, pero eso no es así. En cuanto a la información que ha tenido la oposición en este tema dice que no han tenido información, y que no se le ha facilitado la posibilidad de formular alegaciones. Estamos de acuerdo con las alegaciones presentadas pero se podrían añadir temas relativos al agroaldea, beneficios para el pueblo, puestos de trabajo,...

Se desarrolla un largo debate en relación a este tema y la participación de los concejales y procesos participativos, concluyendo el alcalde que las puertas de la alcaldía están abiertas para aclarar a los concejales lo que deseen.

Sometida a votación es aprobada con 6 votos a favor de EHBildu, 1 abstención de EAJ/PNV y voto en contra de H1!.

12. Informazioa, eskariak eta galderak

Aho batez onartutako presako deklarazioaren ondoren, Udalari 189,64 m²-ko azalera transmititzeko hitzarmena onartu dute korporazokideek aho batez, eta alkateari ahalmena eman zaio hitzarmen hori sinatzeko.

12. Información, ruegos y preguntas

Previa declaración de urgencia aprobada por unanimidad, los miembros de la corporación aprueban por unanimidad el convenio para la transmisión al ayuntamiento de 189,64m², facultándose al alcalde a la firma de dicho convenio.

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez gero, bilkura amaitutzat eman da 21:00etan.

Y no habiendo más asuntos que tratar se levantó la sesión a las 21:00horas.

Astigarraga, 2014ko abenduaren 2a

Xabin Olaizola Lasa
Idazkaria